

OSAKIDETZA - APP



KONTRATAZIO-ZERRENDAK

KONTRATAZIOKO APP-A

KONTRATAZIO ZERRENDEN APP-A - OSAKIDETZA

Osakidetzak aplikazio bat garatu du Android, iOS eta gutxi barru Windows Phone eskuko telefonoetarako, eta horren bitartez, kontratazio-zerrendetan izena emanda daudenek jakin ahal izango dute zein posiziotan dauden kontratazio-eskaintzetan, gardentasun osoz.


Proiektu honen helburu nagusia kontratazioaren kudeaketan publizitatea eta gardentasuna sustatzea da, eskuko telefonoaren aplikazio baten bidez; hots, teknologikoki aurreratua den tresna baten bidez.

Dokumentu honetan APParen funtzionamenduari buruzko azalpen labur bat jasotzen da

Informazioa egunero eguneratzen da, Osakidetzako informazio-sistemetan aurreko egun baliodunean eskuragarri dauden datuekin.

Osakidetzak, hain zuzen ere, informazio-sistema horiek erabiltzen ditu aldi bereko kontratazio-zerrendak kudeatzeko.

APP-RA SARTZEA




Aplikazioa instalatzeko, irakurri dokumentu honen azkeneko zatia. Bertan, eredu gisa, Android sistema eragilea duen gailu batean nola instalatu azaltzen da.

Gogoratu geroago app-ra berriro sartu nahi baduzu zure eskuko telefonoaren pantailan dagoen ikono bat duzula, zuzenean sartzeko aukera eskainiko dizuna.


Hautatu ezazu hizkuntza.

APP-RA SARTZEA



*Zure NAN edo AIZ zenbakiak
punturik, tarterik eta marratxorik gabe*

*Itxaron momentu bat aplikazioa
informazioa sartu arte*



APP-AREN INFORMAZIOA

Aplikazioak informazio hau erakutsiko dizu:

Zerrendak	Posizioa	
2017/10/23 11:01	erl	abs
S - ALTZA-ROTETA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	-	632
S - AMARA BERRI ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	-	942
I - GIPUZKOA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1546	2055

Hautagaiaren izena eta abizenak

Pertsona erabiltzailea zein egunetan eta zein ordutan sartzen den informazioa

Zerrenda-mota:

*S= ordezkapenak eta behin-behinekotasunak
I= lanpostu hutsak eta erreserbatuak*

*Zentroa (ordezkapenak eta behin-behinekotasunak)
edo Eremua (lanpostu hutsak eta erreserbatuak)*

Kategoria

*Kategoria bat baino gehiagotan onartuta egongo bazina,
aplikazioak horien guztien informazioa erakutsiko dizu.*

APP-AREN INFORMAZIOA

erl: posizio erlatiboa, abs: posizio absolutua

Zerrendak	Posizioa	
2017/10/23 11:01	erl	abs
S - ALTZA-ROTETA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	- -	632
S - AMARA BERRI ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	- -	942
I - GIPUZKOA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	1546 -	2055

Kontuan izan erakutsitako informazioa egunero eguneratzen dela Osakidetza-ko informazio-sistematan aurreko egun baliodunean eskuragarri dauden datuekin

Posizio absolutua zerrenda horretan onartutako pertsona guztiak kontuan izanik kontratazio-zerrendan duzun posizioa da.

Posizio erlatiboa egun horretan izendapen bati hasiera emateko eskuragarri dauden pertsonak bakarrik kontuan izanik zerrendan duzun posizioa da.

Posizio erlatiboa hizkuntza-eskakizunarekin


Hizkuntza-eskakizunik ez duzunean, posizio erlatiboa hizkuntza-eskakizunarekin hola agertuko da: "-"

Posizio erlatiboa hizkuntza-eskakizunik gabe

APP-AREN INFORMAZIOA


eta zerrendetako puntuazio eguneratuak ere erakusten ditu.

Ordezkapen eta behin-behinekotasunen zerrendako zentro bakoitzean sakatzerakoan, aplikazioak, posizioekin batera, oposizioaldiko fasearen, esperientziaren eta euskararen puntuazio eguneratuak erakutsiko dizkizu.



Aldi berean, lanpostu hutsen eta erreserbatuen zerrendako eremu bakoitzarekin, dagokion informazioa erakutsiko da.

APP-AREN INFORMAZIOA



App-ak emandako datuek informazio-izaera dute eta ez dute balio juridikorik.

BESTE GAI BATZUK

KONTRATAZIO ZERRENDEN APP-A - OSAKIDETZA

Aplikazio honek eskainitako informazioarekin lotutako kontsultetarako:

Ordezkapenen eta behin-behinekotasunen zerrenda (S):


*jarri harremanetan dagokion Zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko
Zuzendaritzarekin.*

Lanpostu hutsen eta erresebatuen zerrenda (I):

bidali zure kontsulta hona: LP-LC@osakidetza.eus


APP-A INSTALATZEA

- 1.- Sartu Google Play Store-n
- 2.-Idatzi "Osakidetza" bilatzailean
- 3.- Hautatu "Osakidetzako Atari Mugikorra"
- 4.- Sakatu "Instalatu"



APP-A INSTALATZEA

Jarraitu adierazitako pausoak eta itxaron instalazioa amaitu arte.



Sakatu "Ireki" aplikazioan sartzeko.